

# **PORTUGALETEKO BERBIZIGAITASUNARAKO HIRIGINTZ SOZINETATE** **ANONIMOAREN ESTATUTUAK**

**AZKEN EGUNERATZE DATA: 2007ko IRAILAREN 27AN**

## **I. KAPITULUA**

### **SOZINETATERAEN IZENA, IRAUPENA HELBURUA ETA HELBIDE SOZIALARI BURUZ**

#### **1º Artikulua**

“SOCIEDAD URBANISTICA DE REHABILITACION DE PORTUGALETE S.A.”, “PORTUGALETEKO BERBIZIGAITASUNARAKO HIRIGINTZ SOZINETATE ANONIMOA” izenpean, merkataritza sozietate anónimo bat eratzen da. Sozietatea, Estatutu hauen bidez; abenduaren 22ko 1564/1989 legegintzako errege dekretuaren bidez (dekretu honetan, 1976ko apirilaren 9ko lurzoruaren legearen testu bategina onartzen da); 1978ko abuztuaren 25eko Udalkudeaketa araudiaren bidez; Hirigintza Sozietatei buruzko maiatzaren 2ko 1169/1978 legegintzako errege dekretuaren bidez; ondare hiritua eta eraikiaren birgaitzearen ekintza babestuei buruzko uztailaren 17ko Eusko Jularitzaren 189/90 dekretuaren bidez eta arlo honetan aplikatu ahal diren indarrean dauden beste lege-xadapenen bidez araututa egongo da.

#### **2º Artikulua**

Sozietatea denbora zehaztugaberako eratzen da, eta, bere eratze egunetik bere betebeharrekin hasten da.

#### **3º Artikulua**

1.- Sozietatearen helburu soziala, hirigintza izaera duten birgaitze ekintzak garatzea da. Ekintza hauek, Eusko Jularitzako abenduaren 5eko 278/1983 dekretuan eta lurraldeko edozein lege xedapenean (gutxienez Birgaitze Integratu Gunera eta gehienez Portugaleteko hiri antolamendurako Plan Orokorrean mugatuta egongo dira) agertu behar dira.

2.- Sozietatearen oinarriko jarduerak, hurrengoak dira:

- a) Birgaitze Plan Bereziak egin.
- b) Plan eta Hirigintza Proiektuak egin (onura eta kargen banaketa barne).
- c) Eraikuntza mota guztietako Birgaitze Proiektuak idatzi.

- d) Birgaitze lanak egin, halaber, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra edo Birgaitze Plan Berezia gauzatzeak suposatzen duen beste edozein lan egin.
- e) Gizarte-hirigintzen ikerketak elaboratu eta hauen jarraipenak egin.
- f) Lurzoruaren programazioa eta antolaketa sustatu, Birgaitze Plan Berezien zehaztapenak burutzeko helburuaz.
- g) Desjabetze txostenen idatzietan eta kudeaketetan lagundu.
- h) Sozietateak behar duen beste edozein agiri tekniko-juridikoa garatu.
- i) 278/1983 dekretuan eta kontsezio administratibo behar ez diren beste edozein lege-xedapenetan aurreikusita dauden beste edozein ekimen.

#### 4º Artikulua

1.- Helburu soziala burutzeko, Sozietateak , ahal izango du:

- a) Ekipamendu komunitario nagusia gehitzeko eta hobetzeko inbertsio plan bereziak egin eta, hirigintzako esku-hartzeak burutu.
- b) Euskal Erkidego eta Estatu Gobernuekin, Bizkaiko Foru Alduandiarekin eta Autonomi erkidego eta Estatu Administrazioaren beste edozein erakunde publikoekin elkarlanerako hitzarmenak egin.
- c) Erakunde Publikoen baliabideak eta esku-hartzeak kordinatu eta bideratu.
- d) Ahalmen ekonomiko gutxiko etxebizitzetako erabiltzaileekin hitzarmenak egin, Sozietateari etxebizitza horietan birgaitze obrak egiteko ahalmenak emateko.
- e) Erakunde finantziero eta Autonomi erkidegoen artean sortu daitezken hitzarmenetan parte hartu ahal izatea, 278/1983 dekretuaren 35.artikuluaren 4. Puntuan eta Autonomi Erkidegoko beste edozein lege-xedapenean aurreikusten den arabera.
- f) Ekimen pribatuei dirulaguntzak emateko planak egin.
- g) Birgaitze laguntzen eskaerak jaso eta berrikusi, ondoren erakunde eskudunei bidaltzeko.
- h) Ekimen pribatuak kontrolatu, sustatu, dirulaguntzak eman, kudeatu, aholkatu, informatu eta koordinatu.
- i) Birgaitze obrak egiten ari diren bitartean, lan hauengatik kaltetuak izan direnentzat, behin behineko ostatu emateko planak egin.
- j) Zuzenbide arruntak baimentzen duen kasuetan, ondasun higigarri edo higiezinaren gaineko eskubide guztiak iraungi, aldatu, egokitu, transmititu eta erosi, urbanizazio, eraikin eta ekimen guneko ustiapen hobeak lortu ahal izateko.

k) Ordenazioaren ondorioz gertatutako lurzatiak eta partzelak gehien komenitako baldintzetan saldu, aurreikusitako epean eraikiak izango direla ziurtatzeko.

2.- Jarduera hauen garapenean, sozietateak, enpresa pribatu gisa arituko da.

#### 5º Artikulua

Ondorio guztietarako, Sozietatearen helbidea, Portugaleteko Santa Maria 1 kaleako bigarren solairua izango da.

### **II. KAPITULUA**

#### **SOZIETATEAREN KAPITALARI BURUZ**

#### 6º Artikulua

1.-Sozietatearen kapitala, ZAPI MILIOI ETA BOST MILA EUROkoa da (7.005.000,00€). Aipatutako kapitala hamabost mila akzioetan banatuta dago eta akzio bakoitzak LAUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EUROko (467,00€) balio nominala du. Akzio guztiak berdinak, zatiezinak eta 1etik 15.000ra (biak barne) zenbakiekin adierazita daude. Akzio guztiak harpidetuak eta ordainduak daude.

2.- Portugaleteko Udal txit gorena akzio guztien jabea da, eta ezin ditu ez saldu ez beste helburuetara zuzendu.

### **III. KAPITULUA**

#### **SOZIETATEAREN ADMINISTRAZIO ERREGIMENARI BURUZ**

#### 7º Artikulua

Sozietatearen zuzendaritza eta administrazioa hurrengo organoen menpe egongo da:

- a) Batzar Nagusia. Udalbatzak Batzar Nagusia osatzen du.
- b) Administrazio Kontseilua.
- c) Zuzendari – Gerentea.

#### **BATZAR NAGUSIARI BURUZ**

## 8º Artikulua

Udal korporazioak Sozietatearen Batzar nagusia eratuko du, eta akordioak hartzeko prozeduretan, tokiko Erregimeneko legeen arauetara, Antolaketa eta Funtzionamendu arauetara, Tokiko Korporazioen Erregimen juridikora eta gai hau arautzen duten beste lege-xedapenetara moldatuko da.

## 9º Artikulua

- 1.- Batzar Nagusiak bi motatakoak izango dira: Ohikoak, eta Ez-ohikoak.
- 2.- Ohiko Batzar Nagusia urteko lehenengo 6 hilabete barruan elkartuko da, Urteko Balantzea, Galdu-Irabazien kontua, eta orokorrean Administrazio Kontseiluaren lana estabaidatzeko, onartzeko edo gaitsezteko. Administrazio kontseiluaren kideen hautaketa eta karguen berriztapena , legeak edo estatutuek esaten dutenean, ere egingo du. Halaber, urteko kontuen emaitzak zelan edo nola aplikatuko diren erabaiko du.
- 3.- Aurreko paragrafoan aipatzen ez diren gainontzeko Batzar Nagusiak, Ez-ohiko Batzar Nagusiak izango dira, eta Batzar Nagusiko laurden bategatik deitua izan ahalko da.

## 10º Artikulua

Korporazioak, Batzar Nagusien lanetan, hurrengo ahalmenak izango ditu:

- a) Administrazio Kontseilua izendatu.
- b) Estatutuak aldatu edo egokitu.
- c) Kapitala handitu edo murriztu.
- d) Obligazioak jaulki.
- e) Inbentarioa eta urteko kontuak onartu, eta urteko kontuen emaitzen aplikazioa ebatzi.
- f) Sozietate Anonimoen legeak , legedi osagarriak, eta estatutuek Batzar Nagusiari esleitzen dizkion beste eskumen batzuk ( goian aipatu ez direnak).

## **ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZ**

## 11º Artikulua

1.- Administrazio Kontseilua, gutxienez 6 eta gehienez 9 kontseilariz osatuta egongo da, eta Batzar Nagusiak izandatuko ditu. Kontseilariak, 4 urtez egongo dira bere karguan, nahiz eta Batzar nagusiak, edozein momentuan, Administrazio Kontseiluren banaketa adoztu ahal izango duen, beti ere legeak, honi buruz esaten duena errespetatuz.

Administrazio Kontseilu barruan utzuneren bat ematen denean, Batzar Nagusiak, kontseilari berria edo berriak izendatuko ditu.

2.- Administrazio kontseiluko kideek, batzarretara joateagatik, dietetan, urtean 120.000 pezeta jasoko dituzte. Zenbateko hau, urtero KPIren bidez eguneratua izango da, eta urteko lehen egunetik aplikatuko da.

#### 12º Artikulua

1.- Korporazioak erabakiko du nor izango den Kontseiluaren Presidentea. Presidentea Korporazioaren kide bat izan behar da.

2.- Presidente ordea kontseilarietako bat izango da eta Administrazio Kontseiluak izendatuko du. Presidentea ordezkaturiko du , hau ez dagoenean.

3.- Administrazio Kontseiluak, Presidenteak proposatuta, Kontseiluaren Idazkari Nagusia izendatu edo kargutik kenduko du .

#### 13º Artikulua

Administrazio Kontseiluak, sozietatea kudeatzeko, zuzentzeko eta ekimenak edo erabakiak betearazteko ahalmen osoa izango du, beti ere, estatutuak eta merkataritza legedia errespetatuz. Administrazio Kontseiluaren ahalmenek, ezin diote kalterik egin Gerente eta Batzar Nagusiarentzat bereziki gordetako ahalmenei.

#### 14º Artikulua

Hurrengoak, bereziki Administrazio Kontseiluari dagokio (aurreko artikuluan aurreikusitakoa mugatu gabe):

1.- Sozietatea ordezkatu epaiketetan edo epaiketatik kanpoko edozein ekitaldi eta kontratuetan. Halaber, epaitegi eta Auzitegi arrunten eta berezien aurrean, Estatu, Probintzia , Udallerri eta erakunde paraestatal agintari eta bulegoen aurrean, Sindikatu edo zuzenbide publikoen Korporazioen aurrean, Magistraturaren aurrean, Lan , Ogasun eta Foru Ogasunen ordezkarietako aurrean, sozietateari dagozkion eskubideak, salbuespenak, erreklamazioak, eta mota guztietako helegiteak gauzatu eta hauei uko egin komenigarria deritzon.

2.- Administrazio Kontseiluaren ohiko eta ez-ohiko bileren erregimena ezarri.

3.- Sozietatearen helburu sozialarekin zerikusi zuzena edo zeharkakoa duten negozio edo gaiei buruz, eztabaidatu eta akordioak hartu. Negozio edo gai hauek, bereziki Batzar Nagusiarentzat ez dira gordeta egon behar, eta beti ere, aurreko artikuluetan ezarritako mugak kaltetu barik.

4.- Sozietatearen zerbitzu bakoitza eta jarduera antolatu eta ikuskatu.

5.- Mota guztietako kredituak eta maileguak eskuratu ( Industrial Kreditu Bankua eta Espainako Banku Hipotekario ematen dituztenak barne), eta eskuratuz gero, kreditu horiek zelan eta nola banatu erabaki.

6.- Era guztietako eskubide errealak eratu, iraungi eta baliogabetu. Hipoteka eta alokairu bereziak barne.

7.- Ondasun higigarriak, higiezinak eta eskubide errealak, erosi, saldu eta trukatu; partzelazioak, multzokazioak, lurzailen banaketak egin; obra berrien deklarazioa (eraikitzen eta eraikita dauden obretan); Jabetza Horizontaleko erregimenak eratu, elementu komunen partizipazioak ezarriz, eta Komunitate Arauak idazten.

8.- Sozietateari zerbait ordaintzen zaionean, ordainagiriak, frogagiriak, eta ordainketak-gutunak eman.

9.- Era guztietako kontratuak egin, Gordailuen Estatuko Kutxa Nagusia eta Espainako bankuekin, Ogasun eta Lan Ordezkaritzarekin, eta beste erakunde Publikoekin (haien edozein bulegotan) barne.

10.- Proposamenak aurkeztuz, eta hauek egokitzen, lehiaketetan eta enkanteetan parte hartu, obrak, ondasunak, produktuak edo zerbitzuak erosteko edo saltzeko, halaber, era guztietako idazkiak eta agiriak aurkeztu; fidantzak esleitu eta kitatu, beharrezkoak diren agiri publikoak edo pribatuak harpidetu Gordailu Kutxa Nagusian barne eta horniduren eta salmenten zenbatekoa jaso ordain agiriak, igorpenak eta beharrezkoak diren agiriak sinatuz.

11.- Batzar Nagusiaren akordio baliagarriak gauzatu.

12.- Fondo sozialen eta Sozietatearekin zerikusi duten fondoek kokapena, inbertsioa eta nola erabili erabaki.

13.- Langileen kopurua, eta ordainsariak erabaki. Ardura berezi edo buruzagitza eta aginkeko karguak ( Zuzendari-Gerentea barne) izendatu edo baztertu. Honi guztiari buruz Batzar Naguriari informatu behar zaio.

14.- Administrazio Kontseiluaren kideen eta Zuzendari-Gerentearen joan-etorrien gastuak ( Portugaletetik kanpora) adierazi.

15.- Batzar Nagusiak esaten duenaren arabera, obligazioak jaulkitzeko behar den guztia prestatu

16.- Urtero, abenduaren 31 erreferentzia hartuta, Administrazio Kontseiluak, Aktibo eta Pasiboen Balantzea formulatuko du, eta Galdu-Irabazien Kontuarekin eta Memoriarekin batera, kontu-ikuskariei emango die, hauek hauei buruzko ikuskaritza- txosten bat egin dezaten.

17.- Administrazio Kontseiluaren Presidenteari Batzar Nagusiaren deialdia proposatu, eta bilera honetan hartutako akordioak gauzatu.

18.- Auzitegi aurrean konpondu beharreko gaiak, eta erabakitzaile baten aurrean konpondu beharreko gaiak erabaki.

- 19.- Estatutuen interpretazioan sor daitezken zalantzak argitu, eta hauen hutsuneak bete, Batzar Nagusia informatzen, honek egokia iruditzen zaiona erabaki dezan.
- 20.- Eginbeharrak eta gaitasunak osotasunean edo partzialki, Presidentearen esku, Administrazio Kontseiluko kide baten esku edo Zuzendari-Gerentearen esku utzi.
- 21.- Helburu soziala osatzen duen zerbitzu erregimenari buruzko lege edo arauak eta indarrean dauden lege xedapenak betearazi.
- 22.- Zerbitzu ematearen Araudia onartu eta egokitu.
- 23.- Korporazioen Presidenteak, Administrazio Kontseiluak aurkezten dituen hautagaien artean, Zuzendari-Gerentea aukeratuko du. Zuzendari-Gerentea, Administrazio Kontseiluak, eta bere aholkulari-batzordeak ospatzen dituen bileretara joango da.
- 24.- Espainako Bankuan, bere sukurtsaletan, eta beste edozein Banku edo Komertsioan, sozietatearen izenean, kontu korronteak eskatu eta zabaldu, taloiak, txekeak eta dirua ateratzeko edo sartzeko (kontu korronteetan) beharrezkoak diren agiri guztiak sinatu, eta kontu korrentearen epemuga heldutakoan, hauek itxi edo berritu egokia iritziz gero. Bermeak osatu eta berritu eta hauek ireki ahal izateko beharrezkoak diren agiri guztiak formalizatu.
- 25.- Truke-letrak eta gainontzeko hileko kreditu eta igorpen efektuak igorri, endosatu, onartu, negoziatu, deskontatu, eskua hartu, kobratu eta ordaindu.
- 26.- Hirugarren pertsonen alde eskumenak eman, sozietateak erabakitzen duen neurrian, eta Abokatuak eta Prokuradoreak izendatu, sozietatea defenditu ahal izateko edozein epaiketa motan.

#### 15º Artikulua

Administrazio Kontseilua balioztuta egongo da, bilerara joaten diren kide kopurua (zuzenean edo ordezkarien bidez) erdia gehi bat denean.

#### 16º Artikulua

- 1.- Administrazio Kontseilua, ohiko bileran batzartuko da, gutxienez hiru hilabetean behin.
- 2.- Presidenteak edo 3 kontseilari halan eskatzen badute ez-ohiko bileran batzartuko da.
- 3.- Bilerak, sozietatearen helbide sozialean edo Presidenteak adierazitako lekuan burutuko dira.

#### 17º Artikulua

1.- Administrazio Kontseiluaren deialdiak Idazkariak, gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin, igorriko ditu. Deialdian eguna, ordua, lekua eta gai zerrenda agertuko dira. Beraz, beharrezko aurrerapenekin, Idazkariak jorratu gabeko gaiak prestatuko ditu Presidenteak gai zerrenda zehaztu dezan.

2.- Ez-ohiko bilerak deitzeko epea (premiazko kasuetan Presidentearen ustetan), ohiko bilereana baino txikiago izan daiteke, baina deialdian ez-ohiko bilera deitzeko arrazoia edo arrazoiak agertu behar dira.

3.- Kontseilua inongo deialdirik egin gabe batzartu ahal izango da kide guztiak bilerara joaten badira.

#### 18º Artikulua

Administrazio Kontseiluaren akordioak, bilerara joandako gehiengo osoarekin hartuko dira.

#### 19º Artikulua

1.- Administrazio Kontseiluak, bere helburuak lortu ahal izateko, beharrezkoak iruditzen zaizkion Komisioak izendatu ahal izango ditu. Hala ere, komisio hauek aholkatzeko bakarrik izango dira, eta ez dute izango erabakiak hartzeko ahalmenik.

2.- Kontseiluak, bere gain dituen eskumenak utzi ahal izango ditu kideen gehiengo osoaren aldeko botoarekin, legearen arabera utziezinak diren gaiak kenduta edo gehiengo kualifikatu behar diren gaiak kenduta. Azken hauetarako, gehiengo kualifikaturen betetzea eta gainontzeko formalitateak baieztatu beharko dira.

#### 20º Artikulua

1.- Kontseiluaren deliberazioak eta akordioak Akta liburu batean azalduko dira. Liburu hau zenbakituta eta sigilatuta egon beharko da. Idazkariak bilera bakoitzaren akta egingo du, eta hurrengo bileraren hasieran irakurria izango da eta parte-hartzaile guztiek sinatuko dute.

2.- Akta Liburuei dagokionez egin beharreko zertifikazioak, Idazkariaren baimena beharko dute, eta gainera Presidente edo Presidenteak ordezkatzeko duenaren oneritzia eramango dute.

#### 21º Artikulua

Administrazio Kontseiluko Presidentearen atribuzioak:

a) Sozietatearen Estatutuak betearazi.

b) Berari egoki deritzaizkion gaiak Kontseilura eraman, honek hauei buruz erabaki ditzan.



- c) Kontseilu deitu eta honen deliberazioak zuzendu eta buru izan.
- d) Batzar Nagusia eta Administrazio Kontseiluaren akordioak betearazi.

#### 22º Artikulua

- 1.- Presidenteordeak Presidente ordezkatuko du, honek bere eginbeharrak ezin dituenetan bete bai ez dagoelako, bai gaixorik dagoelako edo bai beste arrazoi batzuk direla medio.
- 2.- Kasu hauetan, Presidenteordeak, Presidenteak dituen eskumen guztiak izango ditu.

### **ZUZENDARI-GERENTEARI BURUZ**

#### 23º Artikulua

- 1.- Korporazioaren Presidenteak, Administrazio Kontseiluak aurkeztutako hautagaien artean, Zuzendari-Gerentea aukeratuko du. Zuzendari-Gerentea, órgano honek eta bere aholkulari batzordeek ospatzen dituen bileretara joango da.
- 2.- Kargua, Portugaleteko Udalerri barruan egiten diren lanbidekin bateraezina da.
- 3.- Administrazio Kontseiluak, karguaren ordainsaria, ordutegia eta lanpostuaren gainerako baldintzak ezarriko ditu.

#### 24º Artikulua

- 1.- Zuzendari-gerentearen eskumenak, Administrazio Kontseiluak beragain utzi ditzakenak dira. Normalean, hauek izango dira:
  - a) Zerbitzu eta Langile guztien buruzagitza nagusia eta zuzena.
  - b) Zerbitzu nagusi eta berezien araudia prestatu eta proposatu, halaber, helburu sozialarekin zerikusia duten onartutako araudia eta indarrean dauden udal-xedapen eta xedapen orokorrak betearazi.
  - c) Instalazio eta zerbitzuetarako, beharrezkoak iruditzen zaizkion handitze, zaharberritze, eta berrikuntzak aztertu eta proposatu, halaber, sozietatearen funtzionamendurako beharrezkoak diren mantentze, entretenimendu, birjartze lanak eta tresneri erosketak proposatu.
  - d) Burututako zerbitzu eta operazioen agiria egin, eta hauen erregistro eta estatistikak egiten direla ziurtatu eta enpresari dagozkion zerbitzuak egiaztatu.
  - e) Sozietatearen garapen normal bat lortzeko, Kudeaketa-ekintzak, ikasketak eta ekimen proposamenak erraztu, bereziki, izaera urbanistiko eta ekonomikoak dutenak.

f) Kontseilu eta bere Presidentearen onarpena eta ezaguera behar duten gai eta agiri guztiak prestatu, bildu eta ordenatu.

g) Kontseiluak hartutako akordioak eta ebazpenak prestatu, tramitatu eta ziurtatu burutzen direla.

h) Urtero, urte bukaeran, bere kudeaketari buruzko Memoria Kontseilura eraman eta Kontseiluak Batzar Nagusira eraman beharreko Memoria idatzi.

i) Ardura berezi edo aginte ez duten langileak izendatu eta banandu. Halaber hauen eginkizunak adierazi.

j) Sozietatea ordezkatu epaiketetan edo epaiketatik kanpo, edozein ekitalditan eta kontratuetan. Halaber, epaitegi eta Auzitegi arrunten eta berezien aurrean, Estatu, Probintzia, Udalerri eta erakunde paraestatal agintari eta bulegoen aurrean, Sindikatu edo zuzenbide publikoen Korporazioen aurrean, Magistraturaren aurrean, Lan, Ogasun eta Foru Ogasunen ordezkariaren aurrean, sozietateari dagozkion eskubideak, salbuespenak, erreklamazioak, eta mota guztietako helegiteak gauzatu eta hauei uko egin komenigarria deritzon.

k) Mota guztietako kredituak eta maileguak eskuratu ( Industrial Kreditu Bankua eta Espainako Banku Hipotekario ematen dituztenak barne), eta eskuratuz gero, kreditu horiek zelan eta nola banatu erabaki.

l) Espainako Bankuan, bere sukurtsaletan, eta beste edozein Banku edo Komertsioan, sozietatearen izenean, kontu korronteak eskatu eta zabaldu, taloiak, txekak eta dirua ateratzeko edo sartzeko (kontu korronteetan) beharrezkoak diren agiri guztiak sinatu, kontu korrontearen epemuga heldutakoan, hauek itxi edo berri egokia iritziz gero. Bermeak osatu eta berri eta hauek ireki ahal izateko beharrezko beharrezkoak diren agiri guztiak formalizatu.

m) Truke-letrak eta hileko beste kreditu eta igorpenak igorri, endosatu, onartu, negoziatu, deskontatu, eskua hartu, kobratu eta ordaindu.

n) Ordain agiriak egin, kobroak egin eta kontratuak onartu.

ñ) Aurreko puntuak bête ahal izateko, beharrezkoak diren agiri publikoak edo pribatuak eman eta sinatu.

o) Plan Berezi barnean, lizientzia urbanistika guztiak informatu.

2.- Administrazio Kontseiluak egokia deritzon neurrian, aurrean aipatutako eskumenak murriztu edo handitu ditzake.

#### **IV. KAPITULUA**

#### **SOZIEATEAREN ONDASUN ETA OGASUNARI BURUZ**

#### 25º Artikulua

1.- Sozietateak, bere helburuak lortzeko, erosten edo eraikitzen dituen eraikinak, lurzatiak, instalakuntzak, makineria, ibilgailuak, tresneria, altzariak, eta gainontzeko ondasunak enpresako zerbitzuaren helburuei esleitutak egongo dira. Ondasun hauek, hirugarrenen aurrean hartutako betebeharrei aurre egiteko, erantzuten lehenegoak izango dira.

2.- Portugaleteko Udalak Sozietateari utzitako ondasunak izan ezik, beti ere, utzitakoa erabilera bakarrik bada eta jabetza Udalaren esku jarraitzen badu.

### **V. KAPITULUA**

#### **KUDEAKETA EKONOMIKOARI BURUZ**

#### 26º Artikulua

Ekitaldi ekonomikoa, urtarrilaren lehenengo egunean hasiko da eta abenduaren 31n bukatuko da.

#### 27º Artikulua

Sozietatearen kontabilitatea, partida bikoitza sistemaren bidez eramango da, beti ere, Merkataritza Kodea eta izaera pribatuko Udal Sozietateen xedapen berezien aginduak betetzen direlarik.

#### 28º Artikulua

1.- Administrazio Kontseiluak, ekitalditik bukaeratik, gehienez 3 hilabete ditu Urteko Kontuak, Kudeaketa txostena eta emaitzen aplikazio proposamena formulatzeko. Txosten hauek, legeak esaten duen moduan, enpresak hautatutako ikuskariei eman behar zaie, hauek hauei buruzko ikuskaritza-txosten bat egin dezaten.

2.- Administrazio Kontseiluak, Urteko Kontuak, Kudeaketa txostena, eta emaitza aplikatzeari buruzko txostena Udal Korporazio kideen esku utziko helbide sozialean ditu Batzar Nagusia ospatu baino 15 egun lehenago, eta Udalean aurkeztuko dira denbora nahikoarekin, Batzar Nagusiaren deialdia Udal Korporazioen bilerak arautzen duten araudian, epean eta moduetan egiaztatu ahal izateko.

#### 29º Artikulua

Batzar Nagusiak izendatutako Kontu-ikuskariak, indarrean dauden lege-xedapen arabera egingo du bere lana (gai ekonomikoetan).

## **VI. KAPITULUA**

### **SOZIEATEAREN DESEGITEARI BURUZ**

#### **30º Artikulua**

Sozietatea desegingo da, sozietatea zuzentzen duen arau-xedapenetan, agertzen diren zioak ematen direnean eta bereziki, honi buruz, abenduaren 22ko 1564/1989 legegintza-dekretuko 270. artikuluan ezarritakoagatik.

#### **31º Artikulua**

Sozietatea deseginda, eta nahiz eta erregistro idazpenaren baliogabetzea ez egin, Portugaleteko Udal txit gorenak, kitzatze operazioak egin eta gero, aktiboaren kargu egingo da hau existituz gero.

## **XEDAPEN OROKORRAK**

### **LEHENENGOA**

Estatutuetek arautzen ez duten gaiak, indarrean dauden lege-xedapenek arautuko dituzte.

### **BIGARRENA**

- 1.- Sozietatearen langileak, lan-erregimenaren barruan egongo dira.
- 2.- Sozietateak kontratatutako langileak, Bizkaiko Eraikuntza Hitzarmenaren menpe egongo dira. Langileek, Portugaleteko Udalarekin ez dute inongo kontratu erlaziorik izango.

### **HIRUGARRENA**

Abenduaren 26ko 25/1983 legean (martxoaren 22ko 9/91 legearen bidez aldatuta) eta honekin bat datorren xedapenetan, halaber, udal legedian ez gai aitortutako pertsonak, ezin izango dute kargurik izan sozietatean.

